



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko urtarrilaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko urtarrilaren lauan, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne.
Bilkurako idazkari izendatua izan da : PERUSANSENA Elodie.

Deialdiaren eguna : 2023ko abenduaren 22a

Afitxatze eguna : 2023ko abenduaren 22a

3. ERABAKIA: SUHUSKUNEKO HERRIAREKIN ESKOLA JANTOKIAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO PARTAIDETZA HITZARMEN BATEN IZENPETZEA

(9.1nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio, 2023ko maiatzaren 3ko erabakiz, Ortzaizeko jantokiko bazkari baten prezioa 4,85 euroan finkatu zela.

Zehaztu du partaidetza hitzarmenak badirela Ortzaizeko herriko etxearen eta beren herriko haurrak Ortzaizeko eskoletako batean eskolatuak dituzten herriko etxeen artean. Hitzarmen horiek Ortzaizen helbideratuak ez diren ikasleentzako bazkarien gain hartzearen zenbatekoa finkatzen dute.

Suhuskune eta Ortzaize arteko hitzarmena 2018ko irailekoa da, eta Suhuskuneko haurren bazkarien gain hartzea 0,60 euroan finkatzen zuen.

Auzapezak jakinarazi du Suhuskuneko herriak erabaki duela Ortzaizeko eskolan duen haur bakoitzeko euro 1 bere gain hartzea.

Auzapezak hitzarmen proiektua aurkeztu du, zeina ikasleak Ortzaizen eskolatuak dituzten herri guzientzako baliagarri izanen baita.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari Suhuskune herriarekin Ortzaizeko jantokiaren funtzionamendu partaidetza hitzarmenaren izenpetzeko, eta halaber Ortzaizen eskolatuak dituzten beste herri guzietan.

- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari, gai horri buruzko agiri oro izenpetzeko eta behar diren izapideen egiteko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balitzko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko urtarrilaren 4an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/01/08an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/01/08an.